

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Historiaurretik dirauen *slalom-a*



Ehiztari laponiarra eski gainean, XX. mende hasieran. Eskia, kirol gisa, nahiko berria izan arren, elurretan irristan ibiltzeko oholak Historiaurretik erabili izan dituzte Eskandinavian.

RADROY UHARTEA (NORVEGIA), DUELA 4.500 URTE. Historiaurreko artista batek ehiztari baten irudia grabatu zuen harri gainean. Irudiko ehiztariak larruz estalitako ohol makur bana du oinetan. Oslon, Holmenkollen-eko Eskiaren Museoan gorde dituzten zenbait piezak erakusten dutenez, antzinako eski haiek hiru metrotik gorako luzera zuten.

Eskiaren inguruko idatzizko aipamenik zaharrena Prokopio historialari bizantziarrak egin zuen VI. mendean; elur gaineko lasterketa deskribatu zuen, parte hartzaileak "iparraldeko herrialde urrun" batekoak zirela nabarmenduz.

Mende batzuk geroago, eskandinaviar literaturak Harald III.a Hardrade erregearen dohainak goraiatu zituen: 1060an, Bergen-en, errege norvegiarra bere arerio nagusietako batekin lehiatu zen eski lasterketa ikusgarrian. Halaber, Snorri Sturluson (1127-1241) islandiar poetak Ull jainkoa aipatu zuen bere obran. Ull eskiaren jainkoa zen eta, Sturluson hitzetan, "hain da arkulari eta eskiatzaile trebea, inork ezin baitu harekin lehiatu".

Merkataritza harremani eta migrazio mugimenduei esker, eskia Europan, Ipar Amerikan eta Japonian zabaldu zen. Gerrek ere bultzada eman zitoten ohol pareari, ejertzitoak, beren

mendiko batailoietan, eskiatzaileak trebatzen hasi baitziren. Jardueraren garrantziaren lekuko, Islandian 1730ean indarrean jarri zen honako legea: erregearen mandatuz, herritar guztiek eskiatzen ikasi behar zuten.

Baina eski modernoa ez zen 1825. urtea arte iritsi. Orduan, Sondre Norheim-ek *telemark* izeneko teknika sortu zuen. Norheim norvegiarra zen, baina Norvegia, garai hartan, ez zen independentea. Lehenik daniarren esku egon zen eta, gero, suediar koroaren menpean, 1905ean independentzia lortu zuen arte. Hortaz, XIX. mende osoan eskia identitate nazionalaren ikur bihurtu zen. 1888an Fridtjof Nansen esploratzaileak Groenlandiako kasko polarra zeharkatzea lortu zuen, eta heroi nazional bilakatu zen Norvegian.

Hasiera-hasieratik eskiaren garapena norvegiarren esku izan arren, azken bultzada austriar batek eman zion. Nansenen epopeiak inspiratuta, Mathias Zdarskyk bere eskiak fabrikatu zituen, baina funtsezko aldaketa erantsiz: austriararren eskiak 1,80 metroko luzera besterik ez zuten. Horri esker, eskiatzeko teknika izugarri erraztu zen, eta gero eta herritar gehiago hasi zen malda elurtuetan behera bi oholen gainean jaisten. Baina ez zituzten ehiza, gerra edo garraioa helburu; plazer hutsak eraman zuen eskia gailurrera.

Arrastoak

Akropoli kutsatua

ATENASKO AKROPOLIAK naturaren eta gizakien mehatxu mordoa jaso du historian zehar, baina azken hamarkadetan orain arteko etsairik gogorrenaren aurka ari da borrokan: kutsadura. Akropoliaren zaharberritze zerbitzuko zuzendari Maria Ioannidou-ren esanetan, kutsadurak egituraren, eskulturen eta pinturen xehetasunak suntsitzen ditu.

Horiek berreskuratzeko teknologia berriak baliatu nahi izan dituzte. 40 prozedura ingururekin proba egin dute, eta azkenean, laser infragorria eta ultramorea batzen dituen metodoa aukeratu dute.

Lehenik eta behin Partenoia zaharberritu dute teknika hori erabiliz, eta orain Kariatideen galeriaren txanda da. Hala ere, metodo horri esker ezin dute kutsaduraren kaltea erabat eten; haren eragina apaltzea baizik ez dute lortzen. Borroka oraindik ez dutela irabazi, alegia.

